

“Elgoibarren, astuak goen eta barren”: ekiñaldi bat Elgoibarko euskeriaren gaiñian

Jesus Mari Makazaga

Elgoibarren, 2011ko urrixaren 19-xan

Jaun-andriak, adiskidiak, senitartekuak, antolatzailliak, arratsalde on!

Arratsalde on eta milla-milla esker hitzaldi-aurkezpen honetara etortziagatik.

Eskerrik asko, nola ez, Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuari eta Elgoibarko Izarrari, hitzaldi hau ematera gonbidatziagatik: ohore bat izan zan neretzat gonbidapena, eta pozik hartu naban; baiña larrittasun-puntu batekin ere bai, egixa esateko, herritarren aurrian eman biharreko hitzaldi bat erantzukizun haundiko zeregiña dalako neretzat (beste herriren batian lotsagarri geratuta ere, hara denboraldi batez ez bueltatziarekin konponduta dago, baiña kasu honetan ezin dot halakorik egiñ, bertan bizi naiz eta; hortaz, ahalegiñ berezixa egin bihar nabarmen ez geratzeko eta erbestera bizi izatera jua biharrik ez izateko). Hortaz, ohore bat da neretzat hemen egoitia, baiña ezin esan **pagotxa ere badanik!**

Eskerrik asko, era berian, eta berriz ere, Elgoibarko Udalari eta Elgoibarko Izarrari, azken urtietako udazkenak hitzaldi-ziklo interesgarriz josten ari dalako (ez dot neriagatik esaten, orain artekuagatik baizik: oso interesgarriak izan dira aurreko urtietakuak, bai eta, adibidez, gaur hamabost Amaia Pinachok eta Nerea Alabak Elgoibarko toponimixiaren gaiñian eskaiñi zebena ere).

Oker ez banago, Gotzon Garateren omenaldi modura hasi zan kontu hau, eta ohittura politta bihurtu da azken urtietan. Seguru nago hitzaldi ziklo honek merezi daban jarraipena eukiko dabala hurrengo urtietan ere: Elgoibarren ez da sekula faltako-eta euskera-kontuetan interesa daukan jenderik.

Gotzon Garate maisua aittatu dogu, eta esan nahi neuke hari omenaldi bat egin nahi izan diodala hitzaldixaren izenburuarekin:

Elgoibarren, astuak goen eta barren.

Gotzonek bere atsotizetan, nere ustez bere lan haundixenian, jasotako esaera baten parte bat da, inguruko herrixetako gorabeherak biltzen dittuan esaera baten parte; honela dio esaeriak:

Plaentxian zapuak zikin; Maltzaan katuak dantzan; Elgoibarren astuak goen eta barren; txakur zarrak Eibarren, itxurak egin arren; Bergaran xaguak ganbaran; Deban oilluak txixa egin zeban; Mendaron azarixak giro on.

Haren lan erraldoittik jaso dittudaz nere liburu berrixan esaera asko eta asko: gure herritarren ahuetatik jaso ez dittutenak, haregandik jaso dittut. Liburuan aurkittuko dittu interesa daukanak esaera eta esapide mordoxka bat (700 inguru), eta, gustoko dittudanez, gaurko hitzaldira ere ekarriko dittut hórretako batzuk, liburuan aurkittuko dozuena nola-hala deskribatzeko edo.

Aurtengo apirillaren 4an aurkeztu naban *Elgoibarko ahozko euskara* nere liburu berrixa, Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, Euskaltzaindiko eta Euskal Herriko Unibertsitateko agintarixen aurrian: hala egokitzen zan orduan, bi erakundien hitzarmen baten bidez gauzatu zan-eta liburuaren argitalpena. Pozgarrixa izan zan neretzat aurkezpena; baitta herrittar batzuk han ikustia ere (eskerrik asko, bihotzez). Hala ere, **astelehen buruzuri** bateko eguardixa izanda, normala zan herriko jende asko juan ezinda ibiltzia. Bilbon sortu zan, egun haretan, Elgoibarren ere liburuaren aurkezpen moduko bat egitteko ideia: Elgoibarko euskeriaren gaiñian baldin baziharduan liburuak, nola ez gendun egingo, ba, herrixan beste aurkezpen bat? Erantzuna argi zagan, eta hemen nago zuen aurrian, orduko irakasle- eta akademiko-jendiaren aurrian baiño urdurixago, dudarik gabe.

Holako egoeretan lasai ibiltzeko, **plaza-gizona** izan bihar da derrior, eta ni ez naiz plaza-gizona, berba horren esanahixaren barruan sartzen ez baldin badogu behintzat Jai-Alaixan edo Iturrinian Beronia bat edo kaña fresko bat sarrittan hartzen dabillenarena. Zentzu horretan, banaiz Plaza-gizona (baiña letra larriz idazten da hori, izen berezixa da eta, Elgoibarko Plazia: edarren artian edarrenetakua, bestalde).

Azken hillabetietan, zorra naukan, hortaz, zuekin, herrittarrokin, eta, esaten deben bezela, **zor zaharra, zor txarra**; ez naban nahi zorra zahartu zediñ, eta hona, ba, nola natorren zuen aurrera. **Zorra pagatzen dabanak deskantsau eitten dabala esaten debe, baiña kobratzen dabanak gehixago.** Ia, ba, gaurko hitzaldixa amaittu eta gero ondo merezittako deskantsu batian juaten geran danok etxe aldera (zorduna eta zorra kobratzen dozuena).

Gogoratuko zerate 2007 urtian nola aurkeztu naban liburu bat hitzaldi-areto honetan bertan: *Elgoibarko euskara. Berbak, egiturak eta irakurgaiak*. Liburu haura izan dau oiñarri gaur aurkeztu nahi dodan honek: liburu harétako gaixak dezente gehixago sakondu eta landu dittut, ondorixuen kapitulu berri bat idatzi dot, eta ikuspuntu akademikoago eta espezializatuagua eman nahi izan diot lanari: unibertsitateko araudixak eskatzen dittuan baldintzak betetzeko moduan prestatu naban lan mardulago bat, nere unibertsitatian, EHU, doktoretza-tesi moduan

aurkezteko: tesixa ontzat eman zidan epaimahaixak, eta tesi-lan haren argitalpena da gaur aurkezten dodan liburua: esan bezela, dibulgazio-maillakua zan 2007kua, eta gaurko hau osuagua, mardulagua eta espezializatuagua da.

Irakurliak liburuan zer aurkittuko daban erakusteko, egin daigun osteratxo bat liburuko gaixetatik, azaletik besterik ez bada ere. Esan deidan oso zaila jatala liburu honetako eduki osua ordubete inguruko hitzaldixan laburbiltzia: aitta bateri seme-alaben artian aukeratzeko eskatzia bezela da; dana dot gustoko, baiña ezin, ba, dana sartu, horrela zuek aspertzeko arrisku haundixa legoke eta.

Atalez atal egingo dogu osteratxo hori, liburuko atalen hurrenkera berian.

1. FONOLOGIXIA

*Sein san Sanson? Sanson Sanson san.
San Juan, San Juan, nekez etorri ta azkar juan.
Gaur da San Juan, bixar «juan san».
San Juan, jan-edanak juan.
Akerran adarrak baiño okerraua haiz!*

Halako hitz-joko eta esapidiak esaten dira gure inguruetan, eta gure euskeriaren ahoskera jaso nahi debe. Fonologixaren inguruko era horretako jakingarrixak dittuzue lehenengo kapituluan: arau fonologikuak, billakabide fonetikuak, fonemen errepertorixua, eta abar. Azken fiñian, Elgoibarko euskeriaren sistema fonologikua.

2. IZENAREN MORFOLOGIXIA

Izena daukanak izana daukala esan dau gure lagun Imanolek: ni neu ez dakitt, BA, zer izango naizen, aspaldittik nabil batera eta bestera izenik erabili gabe-eta (Imanol bera ere bai, uste dot). Danak (edo gehixenak) apeliduaren laburtzapena erabiliz jotzen debe neregana: beraz, ez dakitt, ba, izanik ba ete dodan.

Erabili ez, baiña eduki, badaukat izena: **Jesus** edo **Jesus Mari**.

Liburuan jasotako esapide bati kaso eginda, pozik gelditzeko moduan nago:

Izenaren jabe haiz, Jesus!

Hala deitzen dana pertsona ona dala adierazteko erabiltzen da esapide hori.

Gero, hala ere, beste esapide bat entzunda, dudia sartzen jata:

Jesus? Izena bakarrik daukak ona.

Eta tristuria sartzen jata gorputzian beste esaera bat entzuten dotenian:

Jesusen denporakua haiz.

Zeozero edo baten bat zaharra dala esan nahi danian erabiltzen da. Neragatik erabiliko ete debe esaeria?

Jendiak noiznahi galdetzen ditt nola daukaten izena: esateko gogorik ez daukadanian, **ipurdi gizena** erantzuten dot.

Berdintsu erabiltzen dogu beste esaera bat zeozeri erantzun nahi ez diogunian:

–Zer da? –“La mujer del zerdo”!

Zerdo berbia hitz-joko honetan bakarrik erabiltzen dogu Elgoibarren, nik dakittela, ez bestela; baiña hamendik kanpoko zenbaitt euskaldunentzat harrigarriak diran berba batzuk erabiltzen doguz: esate batera, **kaballua**, eta **bentania**. Horrek bezelako erdal jatorriko berba batzuk erabiltzen doguz, eta aspaldi samarretik gaiñera, itxuria danez. Beste erderakada batzuk, **gaur goizekuak** dira, euskeraz ondo ez dakixanarenak, **tobillua**, **muñekia** eta abarrak.

Era honetako berbak Elgoibarren eta inguruetan erabiltzen diralako egiñ izan dau kritikia nere berri-emaille batek baiño gehixagok. Munaundi basarriko **Luis Etxaniz** zanak esandakuak dira berba honek:

“ (...) Oiñ, euskeria, hau baiño garbixaua izango dala haura (Azkaratez bestaldekoa)? Hori pentsatze juat nik. Azkoitti, Azpeitti, hor Tolosa. Hor goittik beherakua, hori euskeria garbixaua dala. Elgoibarren, hamengo jentia-eta, Eibarkuak-eta ere, erderaz etxuagu eitten, eta euskeraz etxuagu eitten. Hamen *bentania* esate jauagu, eta *ventana* dok erderaz. Ez erderaz, eta ez euskeraz. Azkoittixan-da *leixua* esaten jauiek. Horregatikan, euskeria hor askoz garbixagua dagok hamen baiño.”

Nik ez diot kontu honi daukana baiño garrantzi haundixagua ematen; nere ustez, ez dauka garrantzi haundirik. Nik nere berri-emailien jardunian topau dotena ez da izan “euskañola”, “ez euskeria eta ez erderia” ez dan hizkuntza bat: euskeria topau dot. Topau dot euskera edarra, euskera zihatza, euskera komunikatibua, euskera atsegiña, euskera poetikua, erakargarria, barregarria... Momentu bakoitzian hiztunak adierazi nahi zabana arazorik gabe adierazteko moduko euskeria topau dot, berba arrotz samar batzuk gorabehera: horrek, hiztegi-kontu bitxi horrek, gitxienekoa dira hizkuntzen egitturan; inportantia dana da gure euskeria aberatsa eta gure biharrerri erantzuten diena izatia, eta halako euskeria aurkittu dot nere berri-emailien artian: **egixa berdaderua** da hori! Hori da **printzipalena! Grandia da** halako euskeria eukitzia eta entzutia! **Espeziala da!**

Gotzon Garateren hitzak dirá beste honek:

“Behin gizon bati Eibarko euskara gaitzesten entzun nion. Markinako euskara, berriz, oso goian ipintzen zuen. Ni Markinako baserrietan bizi izan naiz eta hango euskara ona dela badakit. Eibarko euskara ere umetatik entzun nuen, ordea, eibartarrekin harremanetan bizi baikin.

Gizon horri honelaxe esan nion: «Adiskide, zuk Markinako euskara oso ona dela diozu eta Eibarkoa oso txarra. Esaidazu, mesedez: zertan bereizten dira Eibarko eta Markinako euskara?».

Isil-isilik gelditu zen. Ez zen gauza izan ezertxo ere esateko. Izan ere, biak oso elkarren antzekoak dira. Eibarren erdal berbaren bat gehitxoago sartzen dutela? Horrek indarra ematen dio euskarari. Euskararen osasuna ez dago lexikoan. Ahal dugun lexikorik euskaldunena erabil dezagun, baina euskararen oinarria eustrukturan dago.”

Kontuak kontu eta erderakadak erderakada, izenari dagokixozen jakingarrixak biltzen ahalegindu naiz bigarren kapitulu honetan; postposizioen eta kasu-marken taulak osatu dittut (deklinabidia); hitz elkartu erabilixenen zerrendia ere egin dot, eta erabiltzen diran eratorpen-atzizkixak batu ere bai. Eta abar.

3. ADITZAREN MORFOLOGIXIA

Baleuka eta balitz, alkarren onduan dabiz.

Banego, banitz, baneu... horrek anai asko dittuk.

Mozolua bahitz, egunez kantauko heuke.

Aditz hórrek eta gehixago jaso dittut aditzari dagokixon kapituluan. Tauletan eman dot aditz-sistema guztia, perifrastikua eta sintetikua, neutrua (nahi badozue, zukakua) eta alokutibua (nahi badozue, hikakua). Azken fiñian, aditzaren erabilleran pertinentiak iruditu jatazen jakingarri guztiak.

Esate batera, esaten da **ekarri dot** eta **ekarri det** aditzen arteko mugia Elgoibar eta Altzola bittartian daguala: Elgoibarren **dot** esaten dala, baiña Altzolan eta Mendaron, **det**.

Esaten da Eibarko eta Plaentxiako **eman detsat**, **eman dotxat** aditzak ez bezela, Elgoibarko NOR-NORI-NORK aditzak ez dirala **EUTSI** aditzaren bidez osatzen (dakizuen bezela), eta **eman diot** erabiltzen dala. Kasu honetan, hor dago Mendebaleko EUTSI aditzaren mugia, dialektologixan *isoglosa* terminua ematen jakona, Elgoibar eta Maltzaga bittartian.

Zenbait aditzetako *J*- ahoskeria (**jausi jata**, **eman jauat**, **ekarri jaonat**) Deba baillarako ezaugarrixa da, baiña Elgoibartik oso gertu hasten da *Z*- ahozkeria erabiltzen: Elgoibarren **etorri jata** esaten da, baiña Debatik Ekialdera, **etorri zat(a)**.

Gaur eguneko gaztiak **ez jako ahiztu** esaten debe, baiña **etxako ahiztu** da gure nagusi-jendiak erabiltzen dabana. Era horretako kontuak erabili dittut kapitulu honetan.

Edade batetik beherakuak, **bazakigun** esan izan dogu; eta zaharraguak zuzendu egitten ziguen: ***bazakigun** ez, **bagenkixan**. Analogiaz osatutako formak erabiltzen dira sarrittan aditz-sisteman. Kontua da baten bat egon bihar dala gaztien jarduna zuzentzeko, irakasliak, gurasuak edo aittitta-amamak. Nik behintzat jarduten dot

nere seme-alaben formak zuzentzen: “Ekarri zegun ez, Ibon, ekarri gendun esan bihar da!”

Azken fiñian fenomeno bera da: analogixia, eta zirkulua berriz ixten da, belanaldiz belanaldi.

4. SINTAXIXA

Uste ez arren, katua xaguak itto Eibarren.

Txakur zarrak Eibarren, itxurak egin arren.

Presia egittia elperrik dok, behiñ ura jua da gero.

Kasualidadia izango da ARREN partikulia dauken bi esaldixak Eibar eukitzia hizpidetzat. Kontzesiozko perpausak dira hórrek, eta era horretakuak eta bestelako perpaus konplexu asko batu dituden sintaxixaren atalian: Elgoibarko euskeriaren perpaus konplexuen gramatika txiki bat osatu nahi izan dot. Hona batu dodazen esaldi konplexuetako batzuk:

Nik esaten dot eze edozeiñek haura ezin tzeikiela ibilli.

Dudarik ez eruango zitxuena!

Errezelua daukat bixar etorriko dala.

Eta gero, amaitxu zan gerria, baiña ez zauan ze janik.

Nik segiduan ezagutu naban, zeatik haren ama gure laguna zan.

Bueno, eta aber monagillo nahi naban bertan izatia, zeatik eze Bizentek laga ein bihar zabala, ezingo zabala atendidu ta.

Gure bentajia hori: txikixak izen gu.

Neskiari hola helduta jutiagatikan, hola helduta jutiagatikan, “doscientas cincuenta pesetas”, multia.

Hart'ik guardasola, eurixa egiñanian ere.

Eta kinto mordua dituden eon giñanak, oin bajauta gauaz baiña.

Nik kendu nion pieza bat automobillari, iñok erabili ez zeixan,

Ba, pixkat denporia pasatze aldera, zeozeren arduria hartzen dogu.

Egixa esan, sintaxixa ez da alor emankorregixa dialektologiaren ikuspuntutik, baiña, Euskaltzaindiko Gramatika batzordekide naizen aldetik, badakitt pixka bat zer biharrizan dauan euskal gramatikagintzan, eta horretarako (euskeriaren beraren gramatika osatzeko) interes haundikua iruditu jata Elgoibarko euskeriaren perpaus konplexuen bilduma xehetua egittia. Adibide ugari hornittuta, ahalegin berezixa egin nahi izan dot hori lortzeko.

5. AHOZKO ERREGISTROKO GERTAKARIXAK

Berri-emailiengandik batutako datuak prozesatzeko, háren testuak husten ekin nitzan: “ezaugarri hau fonologixara, beste hau deklinabidera, hurrengo hau hiztegiara”, eta abar.

Neria bezelako lan monografikuak egin izan diranian (herri jakin bateko euskaria aztertuz), argi egon izan da kapituluaren banaketia: fonologixia, izena, aditza, sintaxia, hiztegiak eta testu erakusgarri batzuk.

Ni ez ninduan asebetetzen, hala ere, banaketa horrek: zeozer falta jatan. Gauza askok erakartzen zeber nere atentzia, baiña ez naban “kajoirik” billatzen háretako asko sartzeko. Kasualidadia izango da, baiña gehixen gustatzen jatzen hizkuntza-gertakariak ziran, gaiñera: hiztunen euskeriari bizitasuna, originaltasuna, adierazgarritasuna, grazia, poetikotasuna... ematen ziuena ziran.

Ez zagan beste erremediorik: ezaugarri horrek danak alperrik galtzen laga baiño lehenago, “hill” (“antes muerto que sencillo”, esaten debe zenbaittek). Zaku haundi bat iriki naban hórrek danak sartzeko. Gero egingo naban nola-halako sailkapena (horrek ez ninduan arduratzen: jasotzia zan premiazkua).

Hortik dator atal honen sorreria. Nik halako liburuetan faltan somatu izan doten kapituluak da; hori da nere bi liburuen (2007kuaren eta aurtenguearen) berritasuna, kapitulu hori idatzi dotela. Eta nolako berritasuna, gaiñera! Tesixa aurkeztu naban egunian, epaimahaiko bost lagunak (danak) aittatu zeber kapitulu hau: kritikak kritika, oso abegi ona izan zaban. Tesixaren banaketia ezagutzen ez zaban lagun batek hala galdetu zidan egun horretan, behiñ aurkezpena amaittu eta gero: “zer demonio idatzi dok zorioneko bostgarren kapitulu horretan?”. Ni poz-pozik, danen atentzia erakarri zualako.

Gustatzen jatalako batu dittut kapitulu honetako kontuak, baiña baita hori nola-hala landu biharra ikusten dodalako ere: etxe askotan (gurasuak euskaldunak ez diralako) hori falta da, eta eskolan edo kalia landu biharko da. Kontua da jauzi haundi samarra ikusten dodala gure zaharren eta gaztien euskeran alderdi honi dagokionez.

Gatozen ahozko erregistroko gertakari batzuen adibidiak ematera:

- KONPARAZIUAK

Galbania baiño alperraua haiz!

Zorrixa baiño alperragua haiz!

Ahuntzak baiño bizar gehixago daukak!

Txitiak beste jaten dau ume horrek!

Telarik gabeko guardasola baiño flakuagua zan.

Konparaziuak asko erabiltzen ditue gure zaharrek: gure jardunian, askoz enfasi eta bizittasun haundixagua lortzen da era honetako konparaziuekin.

- EZEZKO FORMAK

Ez ditt, ba, esan tontua naizela!

—Esan diot lata gehixao ez emateko. —Ez alperrik!

—Umia, ez hari garaiz etorri etxera!

Ezezko formak ere erruz erabiltzen dira; askotan, esaten danaren kontrakua esan nahi danian, gaiñera.

- ERREPIKAPENAK

Ur zuri-zuri-zurixa ikusten da, garbi-garbi-garbixa barruan.

—Basarrixan parorik eztao. —Eztao parorikan.

Errepikapenak ere indar berezixa ematen diue gure jardunari, gure adjektibueri.

- ELIPSIXA

Txarrena zuan zera, biderik ez basarrixetara.

Hogeta hamabostian ezkondu, eta hogeta hamaseixan gerria.

Elipsixaren adibidiak dira hónek: aditza da gehixenetan ixkutatzen dan osagaixa: jakintzat ematen dalako, eta betiere gure jardunaren aringarri eta dinamizatzaile.

- ONOMATOPEIAK

Danba harek, burutik behera.

Amakin juten giñuazen bost lagun ero, koxkorak danak, ttiki-ttaka, ttiki-ttaka, txarrikumak aman onduan bezelaxe jute giñuazen.

Onomatopeiak ere, hotsak eta zaratak adieraztia, islatzia, barra-barra erabiltzen ditue nere berri-emailiak. Oso adierazgarri gertatzen da, eta esan nahi doguna oso argi adierazteko balio debe.

- ESAERAK

San Bizente hotza, neguaren bihotza.

Natibittate, ase ta bete; San Estebantxo, lehen bezela lantxo.

Santa Luzia, eguna motxa eta gaba luzia.

Buztarrixan juateko modukuak dittun bi lagun horrek.

A ze paria, karakola ta baria!

Esaerak ere jarraitzaile asko dittu gure adiñekuen artian; egoerak deskribatzeko, ondorixuak etartzeko, oso baliabide poetikua eta argigarria izaten da askotan. Ekonomikua ere bai, sarritan, esaera batek deskribapen luze bat ordezkatu leike eta. Era horretako 700 esaera eta esapide inguru jaso dittut kapitulu honetan.

- HITZ-JOKUAK

—Eskerrik asko.—Ekarri asko.

—Zer berri? —Zaharra berri.

On billa, on billa, bonbilla!

Eskerrak... Bai, eskerrak eskumiari!

Hizkuntziarekin jolas egitteko, aproposak dira era honetako hitz-jokuak.

6. HIZTEGIXA

Elgoibarren, astuak goen eta barren.

Berriz ekarri dot hona hitzaldiko izenburua, hiztegixaren gaiñian jarduteko. Barren Elgoibarko eta inguru hurbilleko berba berezi bat da, lokailu bat. Hori bezala, Elgoibarkoak eta inguru hurbillekuak diran berba bereizgarriak jasotzen ahalegindu naiz hiztegixari dagokixon kapituluan, 2.500 sarrera inguruko hiztegia osatzeraino. Lexikua jasotziarena amaierarik gabeko lana da, baiña ahalegin berezixa egin nahi izan dot hitz bereizgarri hórrek eta bereizketa dialektologikorako pertinentiak diran berbak jasotzen; bai eta gaur eguneko gaztiak gitxi erabiltzen dittuenak, zaharkituak edo are ahaztuak daudenak ere. Hona adibide batzuk:

*Asteko egunak (martitzena, eguaztena, eguena, barixakua, zapatua, domekia),
abadia, antxitxika, armozua, artazixak, ei (etorri ei da), endemas, bienke, eskuma,
ezteixak, gatzatua, higuíña, ixutu, jaurti, lantzian behiñ, oratu, ugarixua, takian-
potian, takian-takian...*

Hondorik gabeko zakua da hiztegixarena, iñoiz amaitzen ez dan lana, eta nunbait itxi egin bihar. Itxi ez baneu, oraindik hor jardungo naban Juan Mari Elustondo adiskidiarekin berba berrixak sartzten: asko lagundu ditt Juan Marik landare-, belar- eta lora-izenekin, txorixen izenekin, basarri giroko izenekin, eta lankidetzaz hori eskertu gabe ezin naiz lasai geratu.

7. TESTUAK

Testuak ere badittu eskura irakurliak liburuan: sasoe bateko bizimodua, ohitturak, ogibide zaharrak, pentsatzeko eta sentitzeko modua jasotzen ahalegindu naiz testu hónetan. Hizkuntzia da liburuaren gai nagusixa, baiña etnologiaren aldetik ere balixo txiki bat badaukala esango neuke liburu honek eta kapitulu honek.

Atalka sailkatu dittut testuak: gaztetako kontuak, eskolia, Gerra Zibilla, soldadutzia, neskametzia, ezkontza-kontuak, lana, jokuak, posturak, jolasak, euserkia bera... horra zer gai aukeratu dittuten liburura ekartzeko.

Eskolia, adibidez, ez da gaur egunekua bezelakua, gogortxuaua zala esango neuke, entzuten diranagatik diot hori. Hona Garagartza basarriko Joxe Gurrutxagaren esperientzixa eskolan:

“Gabeko eskolia emate zan len. Eta hantxe. Baiña gu hasi giñan, ba, oin bezela ez, lau urtekiñ eta hirukiñ. Orduan zortzi-beratzikiñ edo hola haste zan; eta bost-sei bat urte edo. Astixa zauanian jun bihar izate zan. Hamen zauan kuadrilliakin ere, bizimodua etaratzeko... Hamen ardixa eta ganaua asko eote zan.

Orduan, aittak esandakua ein bi'izete zuan! “Gaur atsaldian eztaok iñoako zearik, eta jun hari, jun hari eskolara”. Eta, len gogo gitxi... Hauxe zan edarra: noizian behin jun. Eskolara jute giñuazen eualdi txarra zanian. Bestela, eote zittuan lanak etxian... ardixak zaittu, behixak zaittu, ittulan eiñ...

Jute giñuazen eskolara, eta han eote giñuazen, bestiak aurrian eta gu beti atzeko zerian, filan. Maistriak, hara, (...) “peloton de torpes” esate ziun, eztakik hori?”

Beste berba honek Pedro Lariz altzolatarrarenak dira:

“Gu bazkaldu ta frontoera jute giñan, edo elizpera. Pelotan eiñ, eta, eskuak zikin-zikiñ einda, eskolara. “A ver –listia pasatzen–, Pedro. A ver esas manos”. La ostra! Zaplada galanta atzaparretan! Da hona, itturrira, garbitzera aguro. Gogorra? Hoixe!

Lengo eskolia txarraua esan nahi dot, oingua baiño. Holakotxe kañabera goorra izaten da, ba? Halakotxia. Eta, ño! Kaskarrian behera!

- Hori, okerrak ziñatelako izango zan...

- Keba! Bera, okerra! Ni ezkertixa naiz, izetetz...

- Eta lagatze zizuen ezkerakiñ idazten?

- Laga?! Hasi iñoiz, eta etorri atzekaldetik... ttaka!, atzaparretan. Joe! Hola. Eta gero, bestiakin ein bihar, eskubixakin. Nik oiñ, jan da eskribitzen, eskubixakiñ, hantxe ikessita.”

Gerra Zibilla, oindik eta gogorragua izan zan gure arbasuentzat. Honela ziharduan Luis Etxaniz “Munaundi”k:

“Mina-zulo haundi bat daok basarrittik gertu. Han eote giñuazen. Eta... dinbi! Eta... daunbi! Eta... daunba, daunba! Goizian jun, eta sartu han egun guztia. Han eote zuan umiekiñ ama, eote zuan gurekiñ. Eta aitta ibiltze zuan árdixekiñ eo, kanpuan eo ibiltze zuan aitta. Eta etortze zuan aitta, illuntzi aldián etortze zuan: “Bueno, oin kalmáu da, eta erten hortik...”. Gaberako beti, zera eitte zuan, ba... kalmáu eitte zuan. Eta gero, gabian, lo eittera, etxera. Baiña hurrengo goizian, berriz ere zulora; Urnobittako puntian ostian ere beste egun baten eonda gauaz. Da basarrixan ere, nun dau etxiak paretaik lodixena? Haren parian. Dinbi ta danba! Dinbi ta danba!! Etxiak mobittu eitte jaittuan. Joe! Buf! Haura goorra zuan! Bai, han mina-zuluan eon giñuazen, makiña bat aldiz bai. Han gaiñetik bonbak jo arren, etxuek apurtuko haura, lodiera haundixa jaukak eta.”

Pedro Barrutiak Eibarren eta Elgoibarren bonbak nola jaurti zittuen ikusi zaban:

“(…) Hamen bonbak eta bota, bonbardeua eta dana izan zan. Gernikan eta Eibarren botatzen egon zianian, hor Karakatetikan eon giñan begira.

Eta tiruak, batetikan da bestetikan; da gu, bedarran meta ostian jarritta. Abioiak eta, danba, danba, danba! Da Eibarren botatzen ikusi eitte genduzen, zela bota zittuen.

Gero, Elgoibarren ere, ba, gu han gaudela, zera, kañonazuak bota zittuen. Eta hamen bat, surtidora badao, ba? Hantxe errekan birek esplotau zeбен. Jota esplotau zeбенian, jota ura goora baiña! Zelako txorrúa! Buenooo! Ixa Elgoibarko torrian alturara! Demasa! Da horrek danak ikustia tokau jaku.”

Antxola basarrixan, berriz, atariraiño etorri jakozen Teodora Arakistaini tropa nazionalak:

“- (Nazionalak) Eta Antxolan bertan sartu ziran?

- Barrura etzian sartu; hárek aurrera juan zian. Hona bat etorri zan zeakin, astokadiakin. Asto bat aurrian, eta gosiak. Basarrixetan emate giñon jatekoa; geuk ere, txarrixa hilda jauan orduantxe, eta txarri zati haundi bat eman giñon, bidian jateko.

Eta gero, erun nahi zittuen hamengo Joxepa zana ta, Nikolasa ta, hórrek erun nahi zittuen aurrera. Asko erun zittuen aurrera. Eta aittak ezetz, eurekin batera jungo zala, bera jun biha bazan, eurak etzixezela. Laga ez harek neskak eruaten; bestela, bajiezak! Juan hari, ba, háren billa!

Eta esate zeбен moruak zatozela atzetik, eta hárek hill eitte zittuela neskak, eta holakuak esate zittuen aurretikan. Gerran, ba, moruak zatozela, eta hárek iual harrapauko zittuela neskak eta. Gizurra!”

Hala ere, gauza tristiak bakarrik ez ziran gertatzen: kontu pozgarrixaguak ere badatoz testuetan: sasoe latzak izan arren, bazan jolaserako eta aisialdirako aukeria ere. Luis Etxanizen hitzak dira hónek, erromerixen gaiñian:

“Erromeixara juten giñan: Madarixara, Kurutzetara, San Lorentzora... Gero, mendi-erromerixak, asko: Sarguate ta, Irukurutzeta ta...

- Eta danera ibiltzen ziñaten?

- Hórretara, dánetara. Larraskanda ta... Hor bazittuan, Aittolako Kurutzian da... Bueno! Hor Urbixan hasi, tta, zeian, Xoxoten da, erromeixak... Udan beti eote zuan nunbaitten. Eta gu, dánetara. Kurutzetan ere eote zuan, pijo! Eta Madarixan. Iual jute giñuazen lenengotik Madarixara. Madarixan etxuen, ba, dantza lotua eitten lagatzen.

Azkoittiko partian etxuen lagatzen. Azkarate gaiñian, Elgoibarko partetik dantza lotua eitte zuan. *Dultze meneo* esaten jakuan Azkoittixan horri. Eta Azkoittiko partetik dana sueltua ein bi'izate zuan, dana sueltuan.”

Afizio haundixa zagan erromerixetarako; **Garizumia baiño luziagoko** ibillaldixak egitten ziran erromerixetara allegatzeko. Talaixa basarriko Dionisio Txurrukak kontautakua da hau:

“Ezkondu gu ein giñan, ba, “el año cuarenta y ocho” ezkondu giñan, bai. “Kuarentaiotxuan”. Hartaraiño bittartian, ba, erromeixara, batera ta bestera. Etzan oingo moduan. Orduan juten zan, gazterixia, ba, oiñez San Migelera-ta, beste aldera-ta.

Oiñ ez, oin kotxia hartu, eta di-da juaten da jentia; baiña dipeentia, oso dipeentia gelditzen da, bai. (...) Pentsa'izu, Santa Eufemia baatik nun daon? Baatik nun daon? Markiñatik harutz, Santa Eufemia. Ba, hara-ta, oiñez juate giñan. Oiñez! Ez hamendik bakarrik, baita hortikan ere, Madarixa aldetik eta Urruzuno balletik, San Lorentzo balletik-eta; oiñez danak, hamen goizaldian daka, daka, daka... Eta etorri ere bai.”

Pelotan jarduten zebe len asko, gaur baiño gehixago, eta edozein lekutan gaiñera: kotxe-traba haundirik ez, eta edozien baztarretan. Juanito Arrietaren berbak dira honek:

“Pelotan, ointxe ere dagan eleizako fatxadan, zerian, Maalan, pelotan asko ein genduan guk. Han, kamiñuan ez zan autorik ibiltzen eta. Arratsalde guztian igual automobil bat ero. Etzauan horren ardurarikan.”

Euskaldun jendiarentzat hain maitiak diran posturak ere, gaur egun bezela, oso arruntak ziran sasoe baten; hala dio Joxe Gurrutxagak:

“Urkittikan probia zela jokatu genduan, hori ezingo juau esan. Idixekin probia jokatu genduan. Probia badakik ze dan? Badakik ze dan?”

- Bai.

- Ba, haura jokauta nao ni. Kaletikan Azkaratera, zeñ ordu batian, zein lenao juan, zein gorao juan. Urrategiri jokatu giñuan, hil tzan anaia zaharrenak eta nik, etxeko ídixekin. Karga haundixakin zuan, eta guk erten genduan lehelengo. Juaristiko so(r)ua, badakik non dauan?

- Bai.

- Juaristiko so(r)o-barrena? Parapandik gorako buelta haundi haura? Haraiñotxe jun giñuazen. Josus, Maria! Ni, mutilkoxkorra nitzuan orduan.

Eta gero Urrategik jokatu bihar juan gure markia eittera. Eta etxuan erten harek. Bilddurtu ein zuan. Ezin zaikiela harek ein da. Guk irabazi genduan! Eta kitto; hori orduan amaittu zuan. Holakuak, mordua!”

Testuen atalari amaieria emateko, gaitzizenen (ezizenen) gaiñian istorixo pare bat.

Lehen, gaur egun baiño askoz gehixago erabiltzen ziran. Joxe Mari Betelu nere osaba zanak kontautakuak dira bi kontakizun barregarri hauek:

POSTARIXA:

“Postarixak galdetuta, ama batek, itxuria, ez zaban ezagutu semian izena, gaitzizenez ezautze zabalako, bai berak eta bai herri guztiak:

- Hamen bizi al da Fulano Etxeberria?

- Ez, hamen ezta Fulano Etxeberriarik bizi!

AUZOKO BATEK: Ez al da, ba, Fulano, zure semia?

- Aiba Dios! Nere semia da, barren!”

GUTUNA DONOSTIARA

“Beste behin, lagun baten helbidia jakiñ ez, eta gutun bat bialdu zaban Donostiara elgoibartar batek, azalian lagunaren gaitzizena bakarrik idatzitta, ondo allegauko zalakuan:

—Kartia ein bihar jauat Tariña nere la(g)unari.

—Baiña, ba al dakiz haren seña?

—Ez, baiña ikusiko’ok nola allatze jakon azalian Tariña ipinitta.

—Bai, zera! Nola allauko’o(k), pa!

—Posturia eingo juau, nahi badok!

—Bale!

Bai jabia(ga)na allau ere kartia! Eta posturia, karta-bidaltzailliak irabazi.

Eta ra kontuak zenbateraiño zauden sartuta gaitzizenak!”

Adarjotziak ere franko izaten ziran lehen, oin bezela: iñoren kontura barre eginda, itxuria, bizipoz pixka bat etortzen jako jendiari. Jendiak bilddur haundixa eukitzen zaban Iñuzente egunian. Izan ere, iñuzentekeixa gogorak eta astunak eitten ei zittuen (**Iñuzente potente, txakurran buztana tente!** esanda).

IÑUZENTE EGUNA

“Halako baten, langille gazte bateri nagusi errementarixak esan ei zion:

—Hartu’ik txunguria, eta erua’ik halako lekura [herrixaren beste muturrera]¹. Allegau da, ta:

—(Beste errementarixak, kónturauta iñuzentekerixia zala, hala esaten dio) Hi, uezabak gaizki esan jak; eztok hamen! Txankakua zubiko errementaira eruan bi’ok txunguria.

Langille gaztia, kejauta, txunguriak zaukan pixuakin. Allegau zan, eta hirugarren errementarixak, errukittuta, hala esan ei zion.

—Adarjotzia izen dok, iñuzentekerixia, eta erua’ik berriz ere txunguria bere lekura.

Langille gaztiak, hasarrian hasarriakin, hartu txunguria, eta Txankako zubitik behera bota ei zaban, ibaira.

Haura ikusi zabenak esaten dabe oindik hor egongo dala ehun kilo inguruko txunguria, Txankakua zubitik gertu, ibaixan.”

¹ ‘Ingudea’, ehun bat kilo izango zittuana.

Xelebrekerixa gehixagoren berri eukitzeko aukeria izan dot berri-emaiillen partetik; Jabier Arriolak, elgoibartartutako mendaroarrak, kontautakua da hau:

“Denporale luze baten, ez zaban euririk eitten, eta rogatibak egittera batu zan baillarako jendia San Migelen (Aistian): ia hala, pixka bat errezauez, eurixa zatorren. San Migelera dixela, auzotar batek aldeko basarriko laguna ikusten dau atarixan jarritta, trankill-trankill. Hala esan zion:

- Ze, bahator San Migelera, rogatibak egittera?
- Ni enajiek batere rogatibak eittera, zuentzako eurixa eitten badau neretzako ere egingo dau eta.”

Euskeria ere izan debe hizpide nire berri-emaiillak. Auzuetako hizkeren arteko desberdintasunak, kaleko eta basarrietako hizkeren artekuak, eta abar. Ikusi deiguzen erakusgarri batzuk.

AUZUETAKO EUSKERIA

“Bueno, auzo artian, Elgoibarren, konparazio baterako, auzo artian danak igual egitten dogu. Bestela, diperente egitten dabe, bai, diperente oso. Oso diperente Azkoittira ere. Elgoibartik Azkoittira sartu zaitte, Madarixara juan zaitte, eta diperente eitten dok han. Azkaraten bertan pasatze zaanian, diperente eitten dozu berba ya.”

KALEKO ETA BASARRIKO EUSKERIA

“Kalian etxakixek euskeraz! Iñok ere ez! Kalian euskeraz gaizki, gaizki, beti gaizki. Nik askotan esan izan jauet tallarrian ibiltzen giñanian da: “zuek eztakizue ez erderaz eta ez euskeraz”. Egixa dok, geñera. Gauza bat *egittia* esan bihar dok, eta *eitxia* gaizki dagok. Hau geizki dagok.”

KALIAN, ERDERAZ

“Hemen tallarrian nerekin ibilittakuak, hik izena esanda eztittuk ezagutuko asko. Gu ibili giñanian, ez artian, baiña gerra onduan eskoletan egon tzuan diziplina bat... euskeraz hitz egittiakiñ...”

Dana erderaz egnitte zuan orduan. Eta oiñ, berrogeta hamar urte, ya hirurogeira dixezenak, mordua dauaz euskeraz eztakixenak. Elgoibarko semiak, e! Nik dakidazenak, neurekin lanian ibilittakuak eta lanian ibili bekuak. Euren artian, beti erderaz. Ahiztu! Euskeria ahiztu! Eskoletan laga ez, eta gero, kalera jun, eta tto, tto, tto! Dana erderaz. Etxian ere erderaz.”

8. ONDORIXUAK

Esaten debe edukazio txarrekua dala nobela beltz baten edo pelikula baten amaieria nobelia edo pelikulía irakurri edo ikusi ez dabanari kontatzia. Eta etxata

begittentzen egokixa liburuaren amaieran etaratzen dittuten ondorixuak gaurko hitzaldira ekartzia.

2007ko liburuan ez zagan halakorik, eta aurtengo honetan azken kapitulu berri hori idatzi dot: 160 hizkuntza-gertaera inguru hartu dittut, eta alboko herrixetako hizkerekin konparatu dot Elgoibarkua, eta esan dot hizkuntza-gertaera bakoitzian zer aldetara egitten dauan Elgoibarrek, Bizkai aldera edo Gipuzkoa aldera; edo, Koldo Zuazoren terminologixia erabiliz, Mendebaleko euskerara edo Erdialdeko euskerara egitten dauan Elgoibarrek.

Soraluze, Eibar, Mendaro, Mutriku eta Deba izan dira batiz bat Elgoibarrekin konparatu dittudan herrixak, Debabarrenekuak, horrekin daukalako Elgoibarkuak antzekotasun gehixen.

Saill guztietako ezaugarrixak hartu dittut (fonologixia, izenaren morfologixia, aditzarena, syntaxa eta hiztegixa), 160 bat, esan bezela, eta kopuru zihatzak eman dittut ezaugarri hórren inguruan: esan dot zenbat ezaugarri diran atal bakoitzian Elgoibarko euskeria Mendebalera **eruten** debenak eta zenbat Erdialdera **eramaten** debenak.

Ezin dot oraingoz gehixago esan: telebistako lehiaketaren batian esaten zan bezela, “**horraño irakurri neike**”. Biharbada, esan neike gure inguruan Gipuzkeratik Bizkaierara edo Bizkaieratik Gipuzkerara egitten dan jausixa ez dala erabatekua, poliki-poliki egitten dana baizik; hori bai. Eta, jende askok esaten dauan bezela, “nahaste haundixa” dauala Elgoibarko euskeran.

Hortik aparte, gauza haundirik ez, nobela baten aurkezpenian amaieria kontatzen ez dan bezela: bestela zeñek irakurriko leuke nobelia? Zeñek ikusiko leuke pelikulia? Nere liburuak ere zer interes izango leuke irakurliak erosi aurretik amaieria ezagutuko baleu? Ez da estrategia komertziala, gero! Ez horixe! Liburuaren salmentiarekin ez naiz aberastuko, idazle eta zine-zuzendari asko aberasten diran bezela, baiña Hitchcock-zalia naizenez gero, suspense pixka batek mesede egingo dio irakurliaren kuriositatiari.

Liburuan eta gaurko hitzaldixan kontatu dizuedana, Elgoibarko euskeria, **erosittako preziuan saldu dizuet**. Baten batek esan izan ditt asko luzatu naizela lana amaitzen, datu-bilketiaren emaitzak geroko gerorako lagatzen nittuala, eta nik hala erantzuten naban: **azkar eta ondo, usuak hegan**, eta bai lasai asko geratu ere: esaerak ere, momentu bakoitzerako egokixa aukeratu ezkeru, asko balixo debe, gero!

Luzapenak luzapen eta usuak uso, esan bihar dot **gustoko mendixan, aldaparik ez dotela** somatu: **astuak aza artian baiño gehixago gozatu dotela** lan hau egitten;

nahiz eta bakarkako lanian, behin baiño gehixagotan, **ardi galdua bezela** sentidu izan naizen, **buztarri bakarreko laguna** bezela.

Batzuentzat, **Garizumia baiño luziagua izango da** liburua; beste batzuentzat, berriz, **txorixa baiño ariñagua**. Horretan ere, beste gauza askotan bezela, **begixa gustu!**

Oiñ, zuen baimenarekin, **keiana egingo dot**, alde egingo dot.

Ondo egiñaren pagua ez ahal dot izango **ate osteko palua!**

Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak goguan hartu!

Eskerrik asko zuen arretiagatik!